

# Jarduerak: Zabaldu begirada

Izenak berak adierazten duenez, helburu nagusia adimena irekitzea da, ezagutza berriei bide emateko. Jarduera horien bidez, ezagutzen dugun bizitzaz dugun ikuspegia aldatzen lagunduko diguten kontzeptuak ikertuko ditugu.



**AKOMA NTSO** Ikurra:  
«Bihotz Erlazionatuak».  
Ulertzearen eta  
akordioaren ikurra.  
Bihotzaren luzapena.



# 3. Jarduera:



## **Izenburua:** Zein mapatatik ikusten dugu mundua?

**Kategoria:** ZABALDU  
BEGIRADA

### **Aurkezpena:**

Munduko mapa bat ikusten dugunean, gure planetaren irudikapen erreala, objektiboa eta zehatza dela pentsatu ohi dugu. Baina errealitatea da **munduko mapa guztiak, salbuespenik gabe, irudikapen distortsionatuak direla.**

Nahiz eta, historian zehar, ezin konta ahala kartograforen proiektzio eta proposamen ugari sortu diren, munduaren mapa irudikatzeko moduaren dilemari aurre egin nahian, horietako bakar batek ere ez du errealitatea den bezala irudikatzen.

**Baina nola liteke hori?** Erantzuna oso erraza da: matematikoki ezinezkoa da esfera baten azalera (3 dimentsio) plano batean (2 dimentsio) irudikatzea nolabait distortsionatu gabe hala lurraldeen tamaina nola beren arteko distantziak edo horietako bakoitzaren forma.

Ariketa honetan, saio ezagunenetako batzuk errepatatuko ditugu. Hausnartuko dugu nola munduaren ikuspegi

distortsionatu horrek, oharkabean, munduaren zatirik handiena gutxies-tera ere bultzatu gaitzakeen.

### **Helburu didaktikoak:**

1. Proiektzio kartografikoa zer den ulertu.
2. Gainazal lau batean (mapak) lur-globoa irudikatzeko erabiltzen diren proiektzio-motak identifikatu: proiektzio zilindrikoa, proiektzio konikoa, proiektzio azimutala eta proiektzio eraldatuak.
3. Mapak helburu desberdinekin sortu zirela ulertu. Proiektzio baten edo bestearen erabilera mapa bakoitzaren motaren eta helburuaren arabera da.
4. Mundua modu batean baino gehiagotan irudika daitekeela ulertu, eta mapa bakoitzak ikuspuntu bat duela, eta, beraz, errealitatearen irudikapen partziala dela.
5. Jabetu nola eragin dezaketen irudikapen kartografikoek herrialdeak eta gizarteak ulertzeko dugun eran.

### **Oinarrizko gaitasun transbertsalak:**

1. Ikasten eta pentsatzen ikasteko gaitasuna.
2. Hitzeko zein hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako gaitasuna.
3. Elkarbizitzarako gaitasuna.

### **Oinarrizko Ikasgai eta Gaitasun diziplinarrak:**

1. **Geografia eta Historia** (Gaitasun sozial eta zibikoa).
2. **Hezkuntza plastikoa, bisuala eta**

1. **ikus-entzunezkoa** (Gaitasun artistikoa).
2. **Balio etikoak** (Gaitasun sozial eta zibikoa).

## **Jarduerarekin transmititu nahi diren funtsezko mezuak:**

- Afrikar kontinenteak beste kontinente batzuekin alderatuta duen benetako tamainaz dugun ikuspegi distortsionatu samarraz jabetu.
- Proiekzio-mota asko daude, eta guztiek ematen diote lehentasuna alderdiren bati, baina beste bat sakrifikatzen dute. Bakar bat ere ez da akatsik gabea, bakar bat ere ez baita gai mundua errealtatean den bezala erakusteko, matematikoki ezinezkoa baita.
- Ez dago proiekzio onik edo txarrik, desberdinak dira, gauza desberdinetarako balio dutelako. Proiekzio kartografikoak mapak sortzen laguntzen diguten tresnak dira, eta, horiekin, nabigatzea, orientatzea, distantziak neurtzea eta antzeko arazoak konpontzen ditugu. Horrez gain, ideiak aurkezteko, istorioak kontatzeko, datuak erakusteko edo bururatzen zaigun beste edozein erabileratarako mapak sortzeko aukera ere ematen digute.
- Mapek, mundua erreproduzitzeaz gain, eraiki egiten dute. Ez dago proiekzio-metodo perfektu bat, denek, modu batera edo bestera, errealtatea distortsionatzen dutelako. Munduaren ikuspegi distortsionatu horrek munduaren zatirik handiena gutxiestera ere eramaten gaitzake, oharkabean.

## **Ikasgelan kontuan hartu beharreko funtsezko alderdiak - "abisua":**

- Mapak sortzeak berekin dakartzan akatsez jabetu behar dugu, haiek egia absolutuak balira bezala ez ulertzeko. Guk ematen diogu mapari geuk nahi dugun interpretazioa.

## **Garapena:**

Jarduera honetan, hainbat tresna eta baliabide erabiliko ditugu, proiekzio kartografikoak zer diren ulertzen laguntzeko, bai eta mapak nola egiten diren jakiteko lehen kontzeptuak ulertzeko ere.

**1. ZEREGINA: Herrialdeen benetako tamaina.** Munduaren mapa irudikatzen duen dilema horren aurrean, ezin konta ahala proiekzio eta proposamen sortu dira historian zehar, denak ere beren akats saihetsezinekin.

Bi saiakera ezagunenak errepasatuko ditugu: Mercator mapa eta Peters mapa.

Ikasleak 4 edo 5 pertsonako taldetan banatuko ditugu. Bi mapak eta fitxa aurkeztuko ditugu, taldean eztabaizatzeko galderak eginez.

## **MERCATOR MAPA VS PETERS MAPA**

Bien artean zer desberdintasun dauken aurkitzeko, begi hutsez behatu eta azaltzea eskatuko zaie, gogoeta eginez eta galdera hauei erantzunez:

- Zein mapa egiten zaizu ezagunagoa, Mercator mapa ala Peters mapa?
- Zer iruditzen zaizu Peters mapa? Zer du berezia? Ikusi duzu inoiz?
- Zure ustez, mapek eragina dute mundua ikusteko gure moduan?
- Zergatik dute mapek Iparraldea goian?
- Ezagutzen duzue herrialde aberats eta pobreei buruz hitz egiteko erabiltzen den Iparraldea Hegoa izendapena?
- Nola uste duzue eragiten duela Mercator proiektzioak Hegoaldeari buruzko ikuspegian?
- Uste duzue Mercator mapak, Hegoaldeko herrialdeak berez diren baino txikiago irudikatzen dituzenez, eragina duela guk herrialde horiek baliabide gutxien dituzten herrialdeak direlako ikuspegia izatean?
- Nola uste duzue eragiten duela Iparraldea/Hegoa, goian/behean, ona/txarra sinbologiak?
- Zuen ustez, zein mapak izan beharko luke zabalduea, Petersena ala Mercatorrena?
- Ondorio praktikoren bat atera dezakegu?

20 minutu inguru igaro ondoren, bateratze-lana egingo da. Ateratako ondorioetatik abiatuta, mapa bakoitzaren historia, ezaugarriak eta hura zein asmorekin egin zen azalduko dugu.

Peters mapa gehiago hurbiltzen da Hego hemisferioan lur-masa gisa hautematen duguna Ipar hemisferioan baino ia bi aldiz handiagoa dela erakustera. Mercator mapak, nabigazioarako mapa zenez eta paraleloen

eta meridianoen arteko angelu zuzenei eusten dienez, eragiten du Iparraldeak askoz handiagoa izateko itxura izatea.

Irakasleek laguntza-materialean aurkituko dute informazioa.

The True Size Of ere erabil daiteke. Tresna horren bidez, herrialdeak benetako tamainarekin alderatu daitezke (lur-globoan duten posizioaren arabera), eta ez mapak erabiliz (proiektzioak). Ingelesez dagoen arren, oso erraza da erabiltzea; konparatu nahi duzun herrialdea jarri behar duzu bitartean, eta, aurkitu ondoren, bertan klik egin eta mapan arrastatu, gainerako herrialdeekin alderatzeko.

Egin ditzakegun zenbait proposamen:

- Alderatu Groenlandia Afrikako kontinentearekin.
- Alderatu AEB Afrikako kontinentearekin.
- Alderatu Brasil AEBekin.
- Alderatu Espainia Kenyarekin, eta abar.

Ondoren, irudipenak partekatzeko espazio bat irekiko da. Parte-hartzea sustatzeko, honako galdera hauek egin daitezke:

- Zein dira handiagoak?
- Alde handia dago horien artean?
- Konturatu zara zer gertatzen den herrialde bat ipar polara edo hego polara mugitzen duzunean?

**2. ZEREGINA: Lur-globoaren irudikapen motak.** Mercatorren mapa ez da perfektua; arazoa da Petersen mapa ere ez dela perfektua.

Sarrera gisa, eta proiektzioaren kontzeptua eta mapen irudikapen desberdinak zergatik dauden ulertzeko, "Mundua ez da irudikatzen duten bezalakoa" bideoa ikusiko dugu.

Mapa guztiek beren benetako tamainarekiko distortsioaren bat dutela ulertu ondoren, ikasleekin lur-globoaren irudikapen motak landuko ditugu.

Proiektzio-motei eta haien erabilgarritasunari buruzko eztabaidarako tarte bat irekiko dugu. Horretarako, hona hemen ikasleei egiteko moduko zenbait galdera:

- Nola irudika daiteke esfera bat plano batean?
- Mapak fidagarriak dira?
- Mapa bat errealitatearen irudikapen zuzena da?
- Ezagutzen dituzue beste proiektzio mota batzuk?
- Zergatik erabiltzen dira proiektzio desberdinak mapetan, eta ez da soilik zuzena dela dakigun bat erabiltzen?
- Mundua behar bezala irudikatzen duen maparik badago?

**3. ZEREGINA:** Ikasleak konturatzen direnean munduko irudikapen bat bere ere ez dela objektiboa edo inpartziala, eta horiek egia absolututzat hartzeari utzita, ideia bat partekatuko dugu: onena da mundua irudikatzea eman nahi diogun interpretazioaren eta mapa bakoitzari eman nahi diogun aplikazioaren arabera.

Proiektzio bakoitzak bere ezaugarriak ditu, eta, ideia hori partekatzeko, talde bakoitzari munduko maparen

proiektzio bat esleituko zaio, honako irizpide hauen arabera:

1. **1. taldea:** norantz orientatzen dugu mapa?
2. **2. taldea:** zer lurralde jartzen dut maparen erdian?
3. **3. taldea:** nola marrazten dugu esfera plano batean? (Mercator, Peters, Hobo-Dyer, Robinson, Goode, Winkel Tripel eta abar) Zer islatzen duten ondo eta zer ez adierazi.
4. **4. taldea:** nola islatzen dituzte mapak gizarte-, politika- eta ekonomia-gaiak? Planoak nahita distortsionatzen dira honako gai hauek islatzeko: <https://worldmapper.org/>

Mapa guztiak biltzen ditugunean, horma-irudi batean edo bideo baten bidez erakutsiko ditugu eta abar.

### Aurreikusitako iraupena:

- **1. zeregina:** ordubete (saio 1).
- **2. zeregina:** ordubete (saio 1).
- **3. zeregina:** 2 ordu (2 saio). Beharrezkoa bada, taldeek eskola-orduetatik kanpo lan egin dezakete eta 3. zeregina entregatzeko astebete eman dakieke.

*OHARRA: \*Ezarritako denbora gutxi gorabeherakoa da. Lanean ari diren ikasleen ikaste-erritmoen, malgutasun instituzionalaren, irakaskuntza-denboren eta abarren arabera egokitzea gomendatzen da.*

### Laguntzarako materialak:

#### GEHIAGO JAKITEKO:

- Mercator vs Peters. Denak menderatzeko mapa bat: <http://psanxiao.com>

[com/mercator-vs-peters-un-mapa-para-dominarlos-a-todos](https://www.youtube.com/watch?v=kSa6_Cg03IQ)

- Bada % 100 objektiboa den munduko maparik?: <https://mapnetico.com/mapa-del-mundo-correcto-y-objetivo/>
- Geografiaren eragina gure mundu-ikuskeran: <https://sarrauteducacion.com/2020/08/02/el-impacto-de-la-geografia-en-nuestra-vision-del-mundo/>
- Munduaren mapa desberdina da herrialde bakoitzarentzat: <https://www.geografiainfinita.com/2014/08/visiones-del-mundo-el-mapamundi-segun-cada-cultura/>
- Mapa guztiak oker daude: [https://verne.elpais.com/verne/2015/04/14/articulo/1429016086\\_681676.html](https://verne.elpais.com/verne/2015/04/14/articulo/1429016086_681676.html)
- Kartografiak mapa bat marraztean duen arazoa: [https://verne.elpais.com/verne/2019/10/16/articulo/1571230321\\_350004.html](https://verne.elpais.com/verne/2019/10/16/articulo/1571230321_350004.html)
- Mapa berri honek konpondu dezake munduaren gure ikuspegi distortsionatua? <https://www.nytimes.com/es/2021/03/03/espanol/mapamundi-nuevo.html> eta [https://verne.elpais.com/verne/2016/05/20/articulo/1463732814\\_876805.html](https://verne.elpais.com/verne/2016/05/20/articulo/1463732814_876805.html)

#### BIDEOAK:

- Mundua ez da irudikatzen duten bezalakoa: [https://www.youtube.com/watch?v=NLaV\\_O3dLpk](https://www.youtube.com/watch?v=NLaV_O3dLpk)

#### PROIEKZIO MOTAK:

- <https://www.youtube.com/watch?v=1LxiNqnYA3w>
- <https://www.youtube.com/watch?v=-3tJVNJL4DOA>

- Mapak, historiaren begiak: [https://www.youtube.com/watch?v=kSa6\\_Cg03IQ](https://www.youtube.com/watch?v=kSa6_Cg03IQ)

#### TRESNAK:

- **APPangea. Geografia eta Historia Jolas gisa:** doako App-a, iOS eta Androidentzat eskuragarri. Geografia eta Historia ikasteko modu berria, gamifikazioan oinarritutako metodologia erabiltzen duena, jolastuz ikasteko. <https://appangea.com/>
- **“The True Size Of...”:** munduko mapa interaktiboa, herrialdeen tamaina errealak konparatzeko. Aukeratu lekua, arrastatu hautaketa eta egiaztatu haren benetako dimentsioak. <https://thetruesize.com>
- **Worldmapper:** kartogramak deritzen munduko mapen bilduma bat da; mapa horietako bakoitzean lurraldeak tamainaz aldatzen dira, intereseko gaiaren arabera. Esporatu mundua inoiz ikusi ez zenuen bezala! <https://worldmapper.org/>
- **Proiektzio kartografikoak eta eskalak:** <https://clasesdesocialesarcas.blogspot.com/2013/09/representacion-de-la-tierra-mapas-y.html>

#### Jarduera ixteko:

Ariketan gertatutakoari buruzko gogoeta kolektiborako espazio bat irekiko da. Hona hemen hausnarketa eta eztabaida sortzen lagundu dezaketen zenbait galdera:

- Zer egin zaizue deigarrien?
- Zer ikasi dugu?
- Zertaz ohartu gara?
- Nola sentitu gara?



# 3. Jarduera:



**Izenburua:** Antzinako Greziaren sustrai afrikarrak

**Kategoria:** ZABALDU  
**BEGIRADA**

**Aurkezpena:**

Unitate honen aurreko jarduerari esker, Antzinako Egiptoko jatorri beltza-afrikarra ezagutu ahal izan dugu. Eta jarduera honekin ezagutuko dugu Egiptok Grezia klasikoaren eraketan izan zuen zeregina. Egipto Faraonikoaren historiak, kulturak eta lurak aztarna sakona utzi zuten kultura grekoerromatarraren pentsamoldean eta irudimenean. Aztarna hori bizirik dago, nolabait, Kultura Klasikoak Mendebaldeko mundu garaikidean duen herentziaren bidez, eta hori ezin da ulertu Greziaren eta Erromaren, alde batetik, eta, bestetik, Faraoen herrialdearen artean izandako kontaktuetatik eta harremanetatik abiatuta baino.

XIX. eta XX. mendeetara arte, Europako ikerketek Greziari buruz emandako ikuspegi nagusiak pentsarazi zigun Greziak kultura guztiz originala sortu zuela, Egiptoko edo Ekialdeko zibilizazioekin inolako zorrik ez zuena. Ikuspegi eurozentriko horrek, ez bairik gabe, gutxietsi egiten zituen Antzina-

teko beste zibilizazio batzuen ekarpenak. Hala ere, planteamendu horren aurka matxinatuz, azken hamarkadetan Egiptok (eta, horrenbestez, Afrikak) antzinako Greziaren eraketan izandako eragin posible bat frogatzen saiatzen diren interpretazio-lerro berriak sortu dira.

Eztabaida ugari eta adostasunera iristeko zailtasunak dauden arren, greziar zibilizazioari tradizioz ukatutako jatorri afrikarra esleitzeak horri buruz zer pentsatu ugari eman diezaguke, eta mundu akademikoan eta gizartean oraindik bizirik dauden ideia eta pentsamendu arrazista asko gainditzen lagundu.

**Helburu didaktikoak:**

1. Gizateriaren jatorri afrikarrak gogoratu.
2. Antzinako historiaren ikuspegi ez eurozentrikoa eman, Antzinako Egiptoren aurreko zibilizazio afrikar handiak ezagutzuz.
3. Antzinako Egiptoko kulturak eta historiak Grezia Klasikoari eta, horrekin batera, mendebaldeko kulturari egindako ekarpenak ezagutu.

**Oinarrizko gaitasun transbertsalak:**

1. Hitzezko zein hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako gaitasuna.
2. Ikasten eta pentsatzen ikasteko gaitasuna.
3. Elkarbizitzarako gaitasuna.
4. Ekimenerako eta espiritu ekintzailerako gaitasuna.
5. Izaten ikasteko gaitasuna.



## Oinarrizko Ikasgai eta Gaitasun diziplinarrak:

1. **Geografia eta Historia** (Gaitasun sozial eta zibikoa).
2. **Kultura klasikoa** (Gaitasun sozial eta zibikoa).
3. **Filosofia** (Gaitasun sozial eta zibikoa).

## Jarduerarekin transmititu nahi diren funtsezko mezuak:

- Afrikaren historia Europako potentzia kolonizatzaile eta inbaditzaileen interpretazioen bidez kontatu izan da beti.
- Duela ez asko, Antzinako Egiptori buruzko aditu batzuek Antzinako Egiptoren jatorri afrikarra eta haren belztasuna erakutsi dute.
- Zibilizazioen arteko harremanak, historian zehar, erakutsi digutena-ekin alderatuta, askoz interaktiboagoak eta pluralagoak izan dira.
- Antzinako Egiptoko kulturak Grezia Klasikoan eta, horrekin batera, gure mendebaldeko kulturaren izandako eraginak.

## Ikasgelan kontuan hartu beharreko funtsezko alderdiak - "abisua":

- Arreta eman ikaskuntza berriek ikasleengan sor ditzaketen erresistentziei eta zalantzei.

## Garapena:

Jarduera honetan, teoria bat berresten duten frogak aurkitu beharko dituzue, zibilizazio greziarrak zantzu guztien arabera sustriak Antzinako Egipton

dituen tradizio kultural aberatsa heredatu zuela dioena.

**1. ZEREGINA:** Hasteko, irakasleak jardueraren helburuak, garapena eta egin beharreko lanak aurkeztuko dizkie ikasleei.

Ondoren, lau zabal ost ikasleko taldeak osatuko dira. Taldeak irakasleek egokitzen jotzen dituzten irizpideen arabera osatu ahal izango dira, eta ikasleei horien osaketa erabakitzen uztea ere badago.

**2. ZEREGINA:** Taldeak osatutakoan, elkarlanean, Antzinako Egiptoko kultura klasikoa sartu ziren elementuak ikertu, prestatu eta erakutsi beharko dizkiete gainerako ikasleei: zientzia, medikuntza, arkitektura, erlijioa/mitologia, astronomia eta matematika.

**3. ZEREGINA:** Ahozko azalpenaren oinarri gisa erabiltzeko, talde bakoitzak horma-irudi bat egingo du.

## Aurreikusitako iraupena:

- **1. zeregina:** ordubete (saio 1).
- **2. zeregina:** ordubete (saio 1).
- **3. zeregina:** 2 ordu (2 saio). Beharrezkoa izanez gero, taldeek eskola-orduetatik kanpo lan egin dezakete eta 3. zeregina entregatzeko astebete eman dakieke.

*OHARRA: \*Ezarritako denbora gutxi gorabeherakoa da. Lanean ari diren ikasleen ikaste-erritmoen, malgutasun instituzionalaren, irakaskuntza-denboren eta abarren arabera egokitzea gomendatzen da.*

## **Ikertu beharreko gai bakoitzerako laguntza-materiala:**

- Atenea Beltza: <http://unlibroaldia.blogspot.com/2009/11/martin-bernal-atenea-negra-las-raices.html>
- «Atenea Beltza» eta Greziaren ekialdeko eragina (Historia Aurkitu): <https://descubrirlahistoria.es/2015/02/atenea-negra-y-el-influjo-oriental-de-grecia/>
- Egipto eta Greziaren sustraiak: [https://historia.nationalgeographic.com.es/a/egipto-y-raices-grecia\\_8854](https://historia.nationalgeographic.com.es/a/egipto-y-raices-grecia_8854)
- Zibilizazioaren sehaska: [https://es.wikipedia.org/wiki/Cuna\\_de\\_la\\_civilizaci%C3%B3n](https://es.wikipedia.org/wiki/Cuna_de_la_civilizaci%C3%B3n)
- Egipto eta ispilatze egiptoarra

mundu klasikoan: <http://antiqua.gipuzkoakultura.net/egipto-y-el-espejismo-egipcio-en-el-mundo-clasico.php>

- Mesopotamiatik greziarregana: <https://www.revistadelibros.com/la-relacion-entre-el-mundo-helenico-y-el-oriental/>

## **Jarduera ixteko:**

Ariketan gertatutakoari buruzko gogoeta kolektiborako espazio bat irekiko da. Hona hemen hausnarketa eta eztabaida sortzen lagundu dezaketen zenbait galdera:

- Zer egin zaizue deigarrien?
- Zer ikasi dugu?
- Zertaz ohartu gara?
- Nola sentitu gara?

# 3. Jarduera:



## **Izenburua:** Timbukto altxorak

## **Kategoria:** ZABALDU BEGIRADA

### **Aurkezpena:**

Ikus-entzunezko jarduera honen bidez, ikasleek Timbukto Liburutegiaren berri izango dute; 12.000 ale baino gehiago ditu, horietako batzuk XV. mendekoak. Jarduera honen bidez garatuko den gaitasun nagusia “ikasten eta pentsatzen ikastea” da (pentsamendu analitikoa eta kritikoa garatzea)

### **Helburu didaktikoak:**

1. Afrikako hainbat kulturatako ondare idatzi aberatsaren berri izan.
2. Timbukto (Mali) Andalusi Liburutegiaren historia ezagutu.

### **Oinarrizko gaitasun transbertsalak:**

1. Hitzeko zein hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako gaitasuna.
2. Ikasten eta pentsatzen ikasteko gaitasuna.
3. Elkarbizitzarako gaitasuna.
4. Izaten ikasteko gaitasuna.

### **Oinarrizko Ikasgai eta Gaitasun diziplinarrak:**

1. **Geografia eta Historia** (Gaitasun sozial eta zibikoa).

### **Jarduerarekin transmititu nahi diren funtsezko mezuak:**

- Afrikan ahozko tradizioa oso garrantzitsua den arren, jakin behar da, haren ondoan, Afrikako ondare idatzi zabal bat dagoela, liburutegi garrantzitsuak dituen antzinako idazki baliotsuak gordetzen dituzten Afrikako hainbat eskualdetan. Beste batzuk galdu, erre edo espoliatu egin ziren eta Europako liburutegietara iritsi ziren.

### **Ikasgelan kontuan hartu beharreko funtsezko alderdiak - “abisua”:**

- Ikasgelan arrazializatutako ikasleak baldin baditugu, haien erreakzioei arreta eman.

### **Garapena:**

Bideoa ikasgelan jarriko da ikusgai, eta ikasleek, gero, bideoan deskribatutakoari buruz eztabaidatuko dute.

### **Aurreikusitako iraupena:**

- Ordubete.


### **Laguntzarako materialak:**

- Bideoa: <https://www.youtube.com/watch?v=91bynriPn4o>

### **Jarduera ixteko:**

Ariketan gertatutakoari buruzko go-goeta kolektiborako espazio bat ireki-ko da. Hona hemen hausnarketa eta eztabaida sortzen lagundu dezaketen zenbait galdera:

- Zer egin zaizue deigarrien?
- Zer ikasi dugu?
- Zertaz ohartu gara?
- Nola sentitu gara?



## 2. Jarduera:



### Izenburua: Kurukan Fuga - Manden Berriaren Gutuna

### Kategoria: ZABALDU BEGIRADA

#### Aurkezpena:

Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala (1948) baino mende batzuk lehenago, Afrikan zabaldu zen ezagutzen den giza eskubideen lehen aldarrikapenetako bat, eta Gizateriaren Kultura Ondare Immaterialaren parte da 2009tik. Mandengo Gutuna edo 'Manden Kalikan' izenekoa da, XIII. mendean Sundjata Keita monarkak, Maliko inperioaren sortzaileak, aldarrikatua. Bere enuntziatuen artean, lehen aldiz jasotzen ditu giza duintasunaren onarpena, bizitzarekiko errespetua, komunitatearekiko elkartasuna eta norbanakoaren askatasuna, esklabotza-sistemaren aurka

#### Helburu didaktikoak:

1. Afrikak giza eskubideen historiari egiten dion ekarpena ezagutu. Afrikaren herentzia kultural eta soziala identifikatu.

#### Oinarrizko gaitasun transbertsalak:

1. Hitzezko zein hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako gaitasuna.
2. Ikasten eta pentsatzen ikasteko

- gaitasuna.
3. Elkarbizitzarako gaitasuna.
4. Izaten ikasteko gaitasuna.

#### Oinarrizko Ikasgai eta Gaitasun diziplinarrak:

1. Geografia eta Historia (Gaitasun sozial eta zibikoa).
2. Balio etikoak (Gaitasun sozial eta zibikoa).

#### Jarduerarekin transmititu nahi diren funtsezko mezuak:

- Afrikan eskubideak aldarrikatzeko lehen mugimenduak **oso antzinakoak** dira, eta historia osoan etengabeak izan dira.
- Afrikan, **eskubide kolektiboen** onarpena **eskubide indibidualena** bezain garrantzitsua da.

#### Garapena:

1. **ZEREGINA:** Hasteko, irakasleak jardueraren helburuak eta garapena aurkeztuko dizkie ikasleei.

Ondoren, **“Afrika klik batean”** podcastaren audioa jarriko da ikasgelan, Afrikako kontinentea publiko gaztelaniadunarengana hurbiltzeko pentsatutako espazioa, Mandengo Gutunari buruzko bideo batekin batera.

**Maliko inperioa:** Podcast (Audioa):

[https://www.ivoox.com/imperio-mali-audios-mp3\\_rf\\_68241132\\_1.html](https://www.ivoox.com/imperio-mali-audios-mp3_rf_68241132_1.html)

**Mandengo Gutuna edo Kurukan fuga:**

Bideoa: <https://youtu.be/HPL51bfhnoo>

2. **ZEREGINA:** Ondoren, ikasleekin hausnartzeko eta eztabaidatzeko espazioa ireki da.

Eztabaida sortzen lagundu dezaketen galdera batzuk iradokitzen dira:

1. Zeri buruzkoa da bideoa?
2. Zer egin zaizue deigarrien?
3. Bideoan esaten da Maliko inperioa urre-oparotasunagatik eta estilo arkitektonikoagatik dela ezaguna. Baina beste zer motiborengatik da ezaguna?
4. Zein dira Mandengo Gutunak ezartzen dituen printzipioak? Zein izan ziren haren lorpenetako batzuk?
  - *Giza bizitzarekiko errespetua.*
  - *Askatasun indibiduala.*
  - *Elkartasuna.*
  - *Esklabotzaren abolizioa.*
5. Norbaitek gogoratzen al du zer dioen haurren hezkuntzari buruz?
6. Eta emakumeari buruz?
7. Eta ingurumenari buruz? Zer ezartzen du?
8. Zerbait gehiago gogoratzen duzue? *Atzerritarrarekiko errespetua, gosea asetzea ez da lapurretatzat hartzen eta abar.*
9. Eskubideak ezartzen dituen beste gutunen bat ezagutzen duzue?
  - *Giza Eskubideen 1948ko Aldarrikapen Unibertsala.* Zer ezaugarri ditu Mandengo Gutunak Giza Eskubideen 1948ko Aldarrikapen Unibertsalarekin alderatuta?
  - *Ezagutzen den Giza Eskubideen lehen Gutuna izan daitekeela. Gizateriaren Kultura Ondare Immaterialaren parte da 2009az geroztik.*
  - *Giza Eskubideen 1948ko Aldarrikapen Unibertsala baino askoz antzinakoagoa dela.*
  - *Ahozko tradizioari esker iraun duela belaunaldiz belaunaldi.*

### **Aurreikusitako iraupena:**

- 1. zeregina: 20 minutu.

- 2. zeregina: 30 minutu.

*OHARRA: \*Ezarritako denbora gutxi gorabeherakoa da. Lanean ari diren ikasleen ikaste-erritmoen, malgutasun instituzionalaren, irakaskuntza-denboren eta abarren arabera egokitzea gomendatzen da.*

### **Laguntzarako materialak (proposamena):**

- I Kurukan Fuga edo Mandengo Gutuna: [https://es.wikipedia.org/wiki/Kurukan\\_Fuga](https://es.wikipedia.org/wiki/Kurukan_Fuga)
- Zer dio Mandengo Gutunak, Giza Eskubideak aldarrikatzen dituen lehen Gutunak? [https://www.youtube.com/watch?v=nSJC-Or\\_OtQ](https://www.youtube.com/watch?v=nSJC-Or_OtQ)
- Gizateriaren Kultura Ondare Immaterialaren zerrenda adierazgarria: <https://ich.unesco.org/es/RL/la-carta-del-mandn-proclama-da-en-kurukan-fuga-00290>
- Giza Eskubideen lehen Gutuna Malin sortu zen: [https://elpais.com/elpais/2012/03/23/africa\\_no\\_es\\_un\\_pais/1332521468\\_133252.html](https://elpais.com/elpais/2012/03/23/africa_no_es_un_pais/1332521468_133252.html)
- Kurukan Fugaren balioaren betierekotasuna: [https://elpais.com/elpais/2013/09/16/africa\\_no\\_es\\_un\\_pais/1379311200\\_137931.html](https://elpais.com/elpais/2013/09/16/africa_no_es_un_pais/1379311200_137931.html)

### **Jarduera ixteko:**

Ariketan gertatutakoari buruzko gogoeta kolektiborako espazio bat irekiko da. Hona hemen hausnarketa eta eztabaida sortzen lagundu dezaketen zenbait galdera:

- Zer egin zaizue deigarrien?
- Zer ikasi dugu?
- Zertaz ohartu gara?
- Nola sentitu gara?



# 2. Jarduera:



**Izenburua:** Emakume afrikarrak erreferente gisa

**Kategoria:** ZABALDU BEGIRADA

**Aurkezpena:**

Afrikako emakumeek hainbat diziplinan egiten duten ekarpena ezagutuko dute ikasleek: zientzia, teknologia, artea, literatura, politika, eta abar; eta, hala, Afrikako emakumeek aurrerapen sozial, zientifiko, politiko eta abarrei egindako ekarpenari buruzko gure estereotipoak birpentsatuko ditugu.

**Helburu didaktikoak:**

1. Era askotako informazio-iturrien kontsulta autonomia, lanak egiteko, Afrikako emakumeen lanak eta ekarpenak ikusgai jarritz.
2. Afrikako emakumeek historian zehar emakumeen eskubideak eskuratzeko egindako ekarpena ezagutu.

**Oinarrizko gaitasun transbertsalak:**

1. Hitzeko zein hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako gaitasuna.
2. Ikasten eta pentsatzen ikasteko gaitasuna.
3. Elkarbizitzarako gaitasuna.

4. Ekimenerako eta espiritu ekintzailerako gaitasuna.
5. Izaten ikasteko gaitasuna.

**Oinarrizko Ikasgai eta Gaitasun diziplinarrak:**

1. Geografia eta Historia (Gaitasun sozial eta zibikoa).
2. Balio etikoak.

**Jarduerarekin transmititu nahi diren funtsezko mezuak:**

- Emakume afrikarrek eta feminismo afrikarrek beren ekintzen erdigunean jartzen dituzte emakume afrikarren bizitzak eta kezak.
- Erreferenterik ez dagoenez, neskek ez dute beren burua islatzeko eredurik.

**Ikasgelan kontuan hartu beharreko funtsezko alderdiak - "abisua":**

- Gelan egon daitezkeen diskurtso estereotipatuak identifikatu, emakumeak gutxiatea eta diskriminatzea dakarten aurreiritziak eta rolak dituztenak.

**Garapena:**

**1. ZEREGINA:** Hasteko, irakasleak jardueraren helburuak, garapena eta izango dituzten zereginak aurkeztuko dizkie ikasleei.

- Ondoren, 5 ikasle talde osatuko dira. Taldeak irakasleek egokitzen dituzten irizpideen arabera osatu ahal izango dira, eta ikasleei horien osaketa erabakitzen uztea ere badago.



- Talde bakoitzari zerrenda bat esleituko zaio hainbat diziplina eta sektoreekin. Banaketa honako hau izan daiteke:

**2. ZEREGINA:** Diziplinak edo sektoreak esleitutakoan, talde bakoitzak gai horietan erreferente diren Afrikako emakumeak bilatu beharko ditu, gaur egungoak eta historiakoak.

- Ondoren, horietako bakoitzari buruzko informazio garrantzitsuena bilatu beharko dute.
- Taldeek informazio garrantzitsua identifikatu eta prozesatutakoan, laburbildu eta erantsitako fitxan idatziko dute.

**3. ZEREGINA:** Bost taldeek beren fitxak osatu ondoren, gainerako taldeekin partekatuko dituzte. Ikaskideei erakutsi diezazkiekete, edo gelako edo ikastetxeko horma-irudi collage batean utzi. Horma-irudian jartzea erabakiz gero, emakume hautatuaren irudi bat sartzea proposatzen da, haren izena jartzea, definitzen duten elementuen marrazkiak sartzea eta haren lana deskribatzen duen testu bat sartzea.

### Aurreikusitako iraupena:

- **1. zeregina:** 30 minutu.
- **2. zeregina:** ordubete (saio 1). Beharrezkoa izanez gero, taldeek eskola-orduetatik kanpo lan egin dezakete eta astebeteko epea eman daiteke 2. zeregina entregatzeko.
- **3. zeregina:** ordubete (saio 1).

*OHARRA: \* Ezarritako denbora gutxi gorabeherakoa da. Lanean ari diren*

*ikasleen ikaste-erritmoen, malgutasun instituzionalaren, irakaskuntza-denboren eta abarren arabera egokitzea gomendatzen da.*

### Laguntzarako materialak:

- Otsailak 11, “Zientziako Emakumearen eta Neskaren Nazioarteko Eguna”. Erreferenteen falta. <https://11defebrero.org/falta-de-referentes/>
- Afrika Etxea: <https://www.casaffrica.es/es>
- Wiriko. Afrikako arteak eta kultura: <https://www.wiriko.org/>
- Historia egin zuten 10 emakume: <https://www.saberesfricanos.net/noticias/cultura/5653-dia-de-la-mujer-africana-10-mujeres-que-hicieron-historia.html>
- Afrikako emakumeen historiak iristen dira erreferenteak sendotzeko <https://www.wiriko.org/letras-africanas/llegan-las-historias-de-mujeres-africanas-para-apuntalar-referentes/>
- Ezagutu beharreko inspirazio-iturri diren emakume beltzak <https://www.unwomen.org/es/news/stories/2020/7/compilation-inspirational-black-women-to-know>

### Jarduera ixteko:

Ariketan gertatutakoari buruzko gogoeta kolektiborako espazio bat irekiko da. Hona hemen hausnarketa eta eztabaida sortzen lagundu dezaketen zenbait galdera:

- Zer egin zaizue deigarrien?
- Zer ikasi dugu?
- Zertaz ohartu gara?
- Nola sentitu gara?

## Koadroa. Diziplinen eta sektoreen banaketa

TALDEA	DIZIPLINA/ARLOA
1. TALDEA	Politika
	Komunikazioa eta teknologia berriak
2. TALDEA	Literatura
	Kirola
3. TALDEA	Zinema
	Zientzia: Medikuntza, fisika edo kimika
4. TALDEA	Pintura edo eskultura
	Arkitektura
5. TALDEA	Musika edo dantza
	Ekonomia

## FITXA. Emakume Erreferente Afrikarrak

<b>IZENA ETA ARGAZKIA</b>	Idatzi pertsonaia historikoaren izen osoa eta itsatsi pertsonaia historikoaren argazki bat
<b>BIOGRAFIA</b>	<ol style="list-style-type: none"><li>1. Jaiotze data eta lekua:</li><li>2. Zein herrialdetan:</li><li>3. Zeregina:</li><li>4. Zehaztu zergatik den pertsonaia garrantzitsua: lanak, sariak, asmakuntzak, gertaera historikoak eta abar.</li><li>5. Beste datu garrantzitsu eta interesgarri batzuk:</li></ol>

## 2. Jarduera:



**Izenburua: Beste baten larruan sartu**

**Kategoria: ZABALDU BEGIRADA**

**Aurkezpena:**

Pertsona arrazializatuekiko diskriminazioa eta bazterkeria soziala gure egunerokoaren zati dira, eta, askotan, ez gara jabetzen horiek gertatzen direnik ere. Litekeena da identifikatzen ez dakigulako izatea, edo erosoagoa zaigulako esatea ez direla existitzen.

Jarduera honen bidez, egoera arrazistak identifikatzen ikasiko dugu, eta zaugarri bihurtutako pertsonen larruan sartzeko aukera izango dugu. Horrela, jarrera inkontziente eta automatizatuak, askotan jakin gabe geure egiten ditugunak, kontziente bihurtzea lortuko dugu.

Garrantzitsua da argitzea lortu nahi dena ez dela pertsona arrazializatuak biktimizatzea, baizik eta haien istorioen errealitatea ezagutzea eta tresnak eta ezagutzak eskuratzea, urratsez urrats diskriminaziorik eta aurreiritzi estereotipaturik gabeko gizarte zuzen bat eraikitzeko. Horrela, pertsona guztiok elkarrekin bizitzen ikasiko dugu, gure arraza-, erlijio- eta gizarte-izaera traba huts izan gabe; aitzitik, izaera horrek kultura desberdinak ezagutzea eta elkartzea positi-

boa eta aberasgarria dela erakutsi behar digu.

**Helburu didaktikoak:**

1. Zaugarritasun egoeran dauden pertsonen senti ditzaketan emozioak sentitu.
2. Migratu behar izan dutelako edo migratzaileen ondorengoak direlako azalaren kolorea, kultura, erlijioa, hizkuntza... bestelakoa duten pertsonen estereotipo eta aurreiritziak hautsi.
3. Gaur egungo gizarteko egoera arrazistek buruzko iritziak trukatu, pertsona arrazializatuaren desberdintasuna eta bazterketa eragiten baitute.

**Oinarrizko gaitasun transbertsalak:**

1. Ikasten eta izaten ikasteko gaitasuna.
2. Hitzeko zein hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako gaitasuna.
3. Elkarbizitzarako gaitasuna.

**Oinarrizko Ikasgai eta Gaitasun diziplinarrak:**

1. **Balio etikoak.** (Gaitasun sozial eta zibikoa).
2. **Filosofia.** (Gaitasun sozial eta zibikoa).

**Jarduerarekin transmititu nahi diren funtsezko mezuak:**

- Gehiago dira beste pertsona batzuekin elkartzen gaituzten gauzak bereizten gaituztenak baino.

- Pertsonekin harremanak izateko eta ulertzeko oinarrizko trebetasun sozialetako bat entzuten jakitea da. Komunikatzeko gaitasunak ematen digu taldeak antolatzeke, negoziatzeko eta konexio pertsonalak ezartzeko aukera.
- Enpatia da beste gaitasun garrantzitsuenetako bat, inguruko pertsonen beharrak, sentimenduak eta arazoak ulertzen laguntzen baitigu, haien lekuan jarri eta erantzun emozionalei zuzen erantzuteko.
- Pertzepzioak pertsonen ditugun irudiak dira, eta diskriminazioa eragiten duten estereotipo eta aurreiritzien ondorio izan daitezke.

### **Ikasgelan kontuan hartu beharreko funtsezko alderdiak - "abisua":**

- Arreta eman planteatzen diren egoerek sor ditzaketen erreakzioei, beren bizipenekin izan ditzaketen loturak direla eta; batez ere, ikasgelan pertsona arrazializatuak badaude.
- Iruzkinak eta jarrera arrazistak identifikatu, horiek, ezabatzeko xedez, landu ahal izateko.

### **Garapena:**

**1. ZEREGINA** Jarduerarekin hasteko, gela 5 taldetan banatuko da, eta garapenaren aurkezpen labur bat egingo da. Taldeak irakasleen ustez egokiak diren irizpideen arabera eratu daitezke.

Talde bakoitzari istorio baten gidioa emango zaio (1. eranskinean daude), eta, ondoren, antzerki gisa antzeztu beharko

du. Ikasleei eskatuko diegu arretaz irakurtzeko eta egoerak barneratzen saiatzeko, pertsonaia bakoitzak istorioa nola bizi duen eta nola sentitzen duen ulertzen saiatzeko, bai eta kontatzen ez diren eguneroko bizitzako xehetasun batzuk nolakoak izan daitezkeen imajinatzeke ere; hau da, "pertsonaien larruan sartzen" saiatzeko.

Komeni da talde bakoitzarentzat istorio desberdinak egotea eta bizipen errealek ahalik eta antzekoenak izatea, beren larruan diskriminazioak sentitzeko gai izateaz gain, eguneroko bizimoduan tankera bereko egoerak identifikatzen ere ikas dezaten.

**2. ZEREGINA** Egoera irudikatu eta gero, bi aukera egongo dira:

**1. AUKERA:** istorioa berriz irudikatzea, baina oraingo honetan egoera diskriminatzailea desagerrarazita. Berrasmatzea eta eguneroko egoera bihurtzea, inplikaturako pertsona guztiak errespetatuz.

**2. AUKERA:** egoera aztertu, aldatu beharko liratekeen jarrerak identifikatuz, eta inplikaturako pertsona guztientzako bizipen positibo nola bihur genezakeen azaltzea. Kasu honetan ez da beharrezkoa antzerki bidez antzezte; nahikoa litzateke ahoz eta/edo idatziz azaltzea.

Ondoren, zenbait galdera egingo dira istorioen azterketa eta birmoldaketa bultzatzeko, aipaturako bi aukeretan erabiltzeko modukoak:

- Nola sentitu zarete pertsona horien larruan sartuta? Bai diskriminazioa jasaten zuten pertsonen larruan, bai

- diskriminatzen zutenen larruan.
- Zer alde ikusten duzue zuen eta zuen pertsonaiaren artean? Eta zertan zarete antzekoak?
- Ezagutzen duzue bizitza errealean istorioetakoen antzeko egoeran dagoen pertsonaren bat? Hobeto ezagutu nahi duzue? Zergatik?
- Nola erreakzionatuko genuke guk antzeko egoeraren batean bageunde? Ikusi duzue baten bat?

### **Aurreikusitako iraupena:**

- **1. zeregina:** 40 minutu
- **2. zeregina:** 20 minutu

*OHARRAK: \* Hemen ezarritako denbora gutxi gorabeherakoa da. Lanean ari diren ikasleen ikaste-erritmoen, malgutasun instituzionalaren,*

*irakaskuntza-denboren eta abarren arabera egokitzea gomendatzen da.*

### **Laguntzarako materialak:**

- Egoera guztiei antzerki forma emateko, behar adina leku eskaintzen duen areto handia.
- 1. eranskinak lan egiteko baliagarri diren 5 istorio eskaintzen ditu.

### **Jarduera ixteko:**

Ariketan gertatutakoari buruzko gogoeta kolektiborako espazio bat irekiko da. Hona hemen hausnarketa eta eztabaida sortzen lagundu dezaketen zenbait galdera:

- Zer egin zaizue deigarrien?
- Zer ikasi dugu?
- Zertaz ohartu gara?
- Nola sentitu gara?

## **1. ERANSKINA: Istorio errealetan oinarritutako diskriminazio egoerak.**

**1. KASUA** Laila 15 urteko neska da, Euskadin jaioa, Burkina Fasotik etorritako ama eta aitarekin. Haurtzaindegian sartu zenetik, D ereduko ikastola batean ikasten du (dena euskaraz), eta euskaraz primeran hitz egiten du. Egun eguzkitsua dago, eta amak oparitu zion zapi afrikar bat buruan jartzea erabaki du. Izugarri gustatzen zaió, oso kolore biziak baititu.

Egunero bezala, goizeko 8etan, gelara joateko hartu behar duen autobusaren galekuan dago. Gaur, bikote heldu batekin topo egin du galekuan, eta, hara iristean, hitz egiten hasi dira, euskaraz xuxurlatzen. Janzkerak kritikatzeko ari ziren, eta euskal kulturara ez egokitzeko leporatzen zioten. Gainera, beren jatorriari, familiari eta kulturari buruzko istorio bat asmatzeko lizentzia hartu dute, ziurtzat emanez Lailarenak bizi diren herrialdekoak baino negatiboagoak eta zorrotzagoak direla. Galekuan beste pertsona bat ere bazegoen, eta Lailari begiratu besterik ez du egin, hari egokitu zaió egoera ikusirik.

Lailak, hitz egiten ari ziren guztia ulertu arren, ez du bere burua defendatu nahi izan, ez zuelako zaugarri agertu nahi. Buruko zapiak kentzeko gogoak besterik ez zuen, baina ez zuen bikotearen aurrean egin nahi hori, esan zuten guztia ulertu zuela jakin ez zezaten. Autobusean eseri denean, mugikorra jotzen hasi zaió. Egun onak emateko deitzen zion andregaiak zen. Euskaraz hitz egiten jarraitu dute. Entzutean, hainbeste harritu dira bikoteko kideak, ezen aurpegian sumatu baitzaie nola apurtu zaien eskema mentala.

**2. KASUA** Hamzak 16 urte ditu, jatorri marokoarra du eta 10 urte zituela iritsi zen Euskadira. Gaur egun DBHko 3. maila ikasten ari da, eta ikasturte bat errepikatu behar izan zuen Euskadira iritsi zenean hizkuntzarekin arazoak zituelako. Orain, gaztelania eta euskara oso ondo dakizki, baina ingelesa zaila gertatzen zaió, ikaskideen erdiei bezala. Kezkatuta dago Batxilergora iristen denerako prestakuntza ona izan nahi duelako, hiru hizkuntzako modalitatean ikasteko asmoa baitu.

Gaur, hirugarren orduan ingeleseko eskola dute, eta Hamza eta bere bi lagunak onenak urduri daude, ezin izan dituztelako etxeko lanak egin, ez baitituzte ondo ulertzen. Eskola-ordua hasi ahala, irakaslea etxeko lanak ozenki zuzentzen hasi da, eta Hamzak eskua altxatu du galdera



bat egiteko. Hitza eman baino lehen, irakaslea Hamzari zuzendu zaio, esanez: *"Noski... nork izango zituen arazoak, bestela, hau ulertzeko? Ez nau harritzen. Baina ez kezkatu, obrako peoi gisa lan egiteko prestakuntza handirik behar ez baduzu..."*.

Egoera horren aurrean, gela osoa isilik geratu da, eta Hamzak, haserre, erantzun dio Marokon ere ikasten zuela ingelesa, baina, egoera pertsonalak direla-eta, ohi baino gehiago kostatzen ari zaiola kontzentratzea.

**3. KASUA** Aste hau da arraza-diskriminazioa ezabatzeko nazioarteko egunarena, eta Afrikako historiari buruz ari dira hizketan gaur. Ikasgelan Noa eta Yousra daude, 13 urteko neska afro-ondorengoak. Noa Bilbon jaio zen, eta haren familia osoa Kubakoa da. Yousra ere Bilbon jaio zen, baina, haren kasuan, Leongoa du ama eta Malikoa aita. Bi neskek beltzak dira.

Irakaslea kontinente afrikarra zenbat herrialdek osatzen duten azaltzen ari den bitartean, Noari eta Yousrari begiratzen die etengabe. Bat-batean, bere diskurtsoa gelditu, eta gelari esan dio bi kasu argi dituztela ikasgelan, eta haiek hobeto azalduko dutela kontua. Noari zuzendu, eta *"nongoa zara?"* galdetu dio. Noak Bilbokoa dela erantzun dio, eta irakasleak berririo galdetu dio: *"Bai, baina nongoa zara?"*. Noak behin eta berriz esan du bera Bilbokoa dela. Irakaslea isilik geratu da, eta galdera bera egin dio Yousrari, erantzun desberdina lortuko duelakoan. Yousrak ere esan du bera Bilbokoa dela. Biek azaldu behar izan dute etorkinak beren familiak direla, ez beraiek.

Egoera horren aurrean, irakasle berak, egoera deserosotik atera nahian, adierazi du zorionekoak direla prozesu horretatik igaro behar izan ez dutelako; izan ere, Bilbon jaio direnez, oso txikiak direnetik egin ahal izan dituzte lagunak. Argudio hori bera erabiltzen du ziurtzat emateko bietako inork ez duela inolako arraza-diskriminaziorik jasan behar izan, ez baitira etorkinak.

*\*OHARRA: pertsonak immigrazioarekin lotu ohi dute arraza-diskriminazioa; hala ere, azalaren kolorea, kultura, sustraiak, hizkuntza, janzkera eta abar arrazismo mota guztietan agertzen diren aldagaiak dira. Kasu honetan, irakasleak egiten dituen galderak eta baieztapenak diskriminazio modu bat dira.*



**4- KASUA** Aishak 16 urte ditu, Mauritaniatik etorria da, eta Euskadin 5 urte daramatza. Ile afroa du, eta, gaur, orrazteko gogorik gabe jaiki da; hala ere, burla egin ziezaioketela pentsatu eta gero, ordu erdi eman du ispiluaren aurrean ile afroa orrazten saiatuz, eta, azkenean, berak nahi bezala geratzea lortu du. Ikasgelara iristean, bi neska eta mutil bat hurreratu zaizkio, eta ilea ukitzen hasi, esanez: *“Ze ile ederra, bitxi samarra da!”*, *“Oso harrotua dago!”*, *“Nola moldatzen zara orrazteko?”*. *Ezingo duzu askatu ere egin, ezta?”*, *“Berez, ez dizu ia batere lanik emango, ezta?, ile afroa beti dago ondo”*.

Aisha oihuka hasi da berehala: *“Ez ukitu nire ilea! Zer naiz, jostailu bat? Ez dakizue zenbat kostatu zaidan gaur ondo uztea! Orain zuek ilea nahastera etortzea besterik ez nuen behar!”*.

Aisharen erreakzioaren aurrean, kideak haserretu egin dira, eta esan diote: *“Ez jarri horrela, hainbesterako ere ez da”*.

**5. KASUA** Duela 3 aste eskas Euskadira iritsi den 17 urteko mutil senegaldarra da Mustapha. Harremanak izateko arazoak ditu eskolan, eta oso bakarrik sentitzen da. Ikaskideek ez dute asko hurbildu nahi, zeren, esaten dutenez, *“ez du ulertuko esaten dioten ezer”*, *“usain sendoa du”* eta *“oso kultura arraroa eta zorrotza du, eta ez da beraiekin bat etorriko”*.

Gaur, Ane, Aitor, Maialen eta Julenek (ikaskideak) harengana hurbiltzea eta harekin hitz egiten saiatzea erabaki dute. Patioaren orduan, Mustapha eguzkitan eserita zegoen, bere ogitartekoa jaten, eta taldea harengana hurbildu da bere burua aurkezteko. Bat-batean, Anek oihu egin du: *“Aizu, oso usain ona daukazu, beltza izateko!”*. Mustaphak sinesgaiztasun aurpegiarekin begiratu dio, baina irribarre egin, eta eskerrak eman dizkio, besterik gabe. Maialenek esan dio: *“Zer leku ona aukeratu duzun ogitartekoa jateko, hemen oso ondo egoten da eguzkitan”*, eta Julenek gaineratu du: *“Bide batez, zuek erretzen zarete hondartzara joaten zaretenean?, esan nahi dut... benetan ezin zarete beltzago jarri, ezta?”*. Azkenik, Aitorrek hau esan dio: *“Jo, barkatu Mustapha, beti izan ditugun zalantzak dira... baina, hala ere, ez duzu zertan gaizki sentitu... jakin-min hutsagatik galdetu dizugu... Gainera, zu ez zara beltza, morenitoa zara!”*.

Mustaphak modu atseginean erantzuten die haien galdera guztiei, baina ezin du saihestu gogaitu samar sentitzea. Berez, bere burua defendatzeko gogoia du, baina lagunak egin nahi izateak iruzkin arrazista horiek alde batera uztera bultzatzen du.

# 3. Jarduera:



## Izenburua: Ziber-aktibista afrikarrak

## Kategoria: ZABALDU BEGIRADA

### Aurkezpena:

Informazioaren teknologien garapenak parte-hartze politikorako eta protesta sozialerako modu berriak sortu ditu Afrikan. Jarduera honen bidez, herritarren erantzukizuna sustatzeko eta beren herrialdeetako demokrazia indartzeko gizarte-sareak erabiltzen ari diren Afrikako ziber-aktibista batzuk ezagutuko ditugu.

### Helburu didaktikoak:

1. Herritarrek beren ingurunea eta gizartea aldatzen eta hobetzen daukaten funtsezko eginkizuna ezagutu.
2. Espazio digitalak eta sare sozialak aktiboki parte hartzeko bitartekoak direla ulertu.
3. Emakumezko ziber-aktibista afrikarren ekarpena ezagutu.

### Oinarrizko gaitasun transbertsalak:

1. Hitzezko zein hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako gaitasuna.
2. Ikasten eta pentsatzen ikasteko

- gaitasuna.
3. Elkarbizitzarako gaitasuna.
4. Ekimenerako eta espiritu ekintzailerako gaitasuna.
5. Izaten ikasteko gaitasuna.

### Asignaturas y Competencias básicas disciplinares:

1. Geografia eta Historia (Gaitasun sozial eta zibikoa).
2. Balio etikoak (Gaitasun sozial eta zibikoa).

### Jarduerarekin transmititu nahi diren funtsezko mezuak:

- “Ziber-herritarrek” indar handia hartu dute Afrikako kontinente osoan. Afrikako komunitate digitaletatik aktiboki parte hartzen dute bizitza sozial eta politikoa, herritarren erantzukizuna sustatzen dute eta beren herrialdeetako demokrazia indartzen dute.

### Garapena:

Jarduera hau garatzeko 5 ikasle talde eratuko dira. Talde bakoitzak bere herrialdeetan demokrazia parte-hartzailerako prozesuak sortzea lortu duen Afrikako ekintzaile gazte bana ikertuko du.

Gazteek zer IKT (Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia) tresna (blogak, sare sozialak eta abar) erabili zituzten azalduko dute taldeek, eta inguruan zer eraldaketa eta lorpen sozial eskuratu dituzten.

Informazioa bildu ondoren, taldeek elkarrekin trukatu dute informazio hori, ikerlanaren gai izandako 5 gazteak ezagutzeko.

## **Aurreikusitako iraupena:**

- 2 ordu (2 saio).

*OHARRA: Ezarritako denbora gutxi gorabeherakoa da. Lanean ari diren ikasleen ikaste-erritmoen, malgutasun instituzionalaren, irakaskuntza-denboren eta abarren arabera egokitzea gomendatzen da.*

## **Laguntzarako materialak:**

- Afrika eta sare sozialak: herritarren parte-hartze modu berriak. El País. Afrika ez da herrialde bat. [https://elpais.com/elpais/2016/02/18/plane-ta\\_futuro/1455818026\\_253153.html](https://elpais.com/elpais/2016/02/18/plane-ta_futuro/1455818026_253153.html)
- Afrika: hala sareetan nola kaleetan. 5W aldizkaria.. <https://www.revis-ta5w.com/temas/movimientos-sociales/africa-asi-en-las-redes-como-en-las-calles-7781>
- Jazarpenaren eta askapenaren artean: Afrikako emakumeen ziber-aktibismoa matxismoa hackeatzeko. <https://www.eldiario.es/desalambre/censura-ciberacti->

[vismo-mujeres-africanas-machismo\\_1\\_1709496.html](https://vismo-mujeres-africanas-machismo_1_1709496.html)

- Ziber-aktibismo femeninoa: [https://elpais.com/elpais/2016/02/01/plane-ta\\_futuro/1454329896\\_710939.html](https://elpais.com/elpais/2016/02/01/plane-ta_futuro/1454329896_710939.html)
- Ziber-aktibismoa Afrikan: <https://www.africaye.org/?s=ciberactivismo&submit=Go>
- Protesta, aktibismo digitala eta eraldaketa politikoa Saharaz hegoaldeko Afrikan: <https://www.africaye.org/protesta-activismo-digital-y-cambio-politico-en-africa-sub-sahariana/>

## **Jarduera ixteko:**

Ariketan gertatutakoari buruzko go-goeta kolektiborako espazio bat irekiko da. Hona hemen hausnarketa eta eztabaida sortzen lagundu dezaketen zenbait galdera:

- Zer egin zaizue deigarrien?
- Zer ikasi dugu?
- Zertaz ohartu gara?
- Nola sentitu gara?





